

Noeren ontzi bat parkean
Wendy Orr
Ilustratzailea: Kerry Millard
Itzultzailea: Iñaki Zubeldia
Ibaizabal, Bilbo, 2006

Bakardade osagarriak

Wendy Orr idazle kanadiar beteranoa ezaguna zen gure artean, duela urte batzuk argitaratutako *Nimen uhartea* eleberriatatik. Oraingoan dakarren liburua, *Noeren ontzi bat parkean*, 1994an argitaratu zen ingelesez, eta hurrengo urtean libururik onenaren saria jaso zuen “Australian Children’s Book Council Awards” direlako barruan, eta gerora hizkuntza askotara itzulia.

Hiri handi anonimo bateko “eraikinik garaieneko (...) azken solairuko apartamentuetako batean bizi zen Sofia”, oso bakarrik sentitzen zen neska bat. Neba biki jaioberriek betetzen zuten gurasoen denbora gehiena, eta Sofiak leihotik ikusten zuen parke handi batera jolastera joatearekin egiten zuen amets.

Hiriko parke handi hartan, berriz, “munduko animalia-denda guztien artean handiena, bitxiena eta miresgarriena” zegoen. Jabeak Noe deiturako senar-emazte zaharrak ziren eta, hortaz, animalia-dendaren izena gehiegi pentsatu beharrik ez zuten izan: “Noeren Ontzia”. Senar-emazteak zeregin harekin pozik bizi baziren ere, haien zoriona ez zen betea; izan ere, “gauero-gauero, Noe jaunak eta andereak ezinezko gauza bat desiratzen zuten: bilobak edukitzea”.

Elkarren ondoan bizi izan arren elkarren berririk ez duten pertsonak oso ohikoak dira hiri handietan, baina Sofiak, bere urtebetetzearen aitzakian, Noeren Ontziari bisita egitea lortu zuen, eta handik aurrera Noe senar-emazteekiko harreman gero eta estuagoa egin zuen. Bakoitzak, finean, bere hutsunea betetzea lortu zuen: “Nork esan du ezinezko desirak ez direla betetzen?”.

Istorioaren garapena oso ondo eramanda dago, eta une hunkigarriak ditu. Zalantzak ditugu, ordea, abiapuntu gisa erabiltzen den intertestua, Noeren arkaren istorioa alegia, gaur eguneko umeei ezaguna zaien. Jatorrizko izenburuan dagoen hitz jolasa, “Ark in the park”, ezinbestean galdu egiten da itzulpenean. Hala ere, “arka” oihartzun handiko hitza aukeratuko genuen beharbada. Eskertzekoa litzateke, orobat, hau bezalako liburu onen itzulpenak pixka bat gehiago zaintzea, irakurle guztien onerako.

Manu Lopez Gaseni